Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko ekainaren 11, ostirala — 109 — Viernes, a 11 de junio de 2021

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## OIARTZUNGO UDALA

*Oiartzungo udaleko obra eta zerbitzuen arduraduna lanpostua lehiaketa espezifiko sistemaren bitartez hornitzeko deialdia eta oinarriak onartzea.*

Oiartzungo Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko maiatzaren 25ean eginiko bilkuran, honako erabakia hartu zuen:

*Lehenengoa.* Udal honetako obra eta zerbitzuen arduradun lanpostua lehiaketa espezifikoaren bitartez hornitzeko deialdia egitea.

*Bigarrena.* Deialdi hau arautuko duen oinarriak onartzea. Erabaki honen eranskin gisa doaz oinarriak.

*Hirugarrena.* Deialdi hau eta oinarriak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Tokiko Gobernu Batzarrari, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Oiartzun, 2021eko maiatzaren 31.—Jexux Leonet Elizegi, alkatea. (3826)

*Oiartzungo udaleko obra eta zerbitzuen arduraduna lanpostua lehiaketa espezifiko sistemaren bitartez hornitzeko oinarriak.*

*Lehena. Xedea.*

1.1. Oinarri hauen xedea da Oiartzungo Udaleko obra eta zerbitzuen arduradun lanpostua lehiaketa espezifiko sistemaren bitartez hornitzeko deialdia arautzea.

1.2. Plazaren eta lanpostuaren ezaugarriak.

— Lanpostuaren izena: obra eta zerbitzuen arduraduna.

— Plaza: Administrazio Bereziaren eskala, Zerbitzu berezien azpieskala, eta ofizioetako langile motakoa.

— Titulazioa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan Graduatua.

— Hizkuntza eskakizuna: 2. hizkuntza eskakizuna, derrigorrezkotasun-data nahitaezkoa.

— Klasifikazioko azpitaldea: C1/C2.

— Destinoko osagarri-maila: 15.

— Berariazko osagarria: 22.420,86 euro.

## AYUNTAMIENTO DE OIARTZUN

*Aprobar la convocatoria y las bases para la provisión del puesto de trabajo de responsable de obras y servicios del Ayuntamiento de Oiartzun mediante el sistema de concurso específico.*

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el día 25 de mayo de 2021, adoptó el siguiente acuerdo:

*Primero.* Aprobar la convocatoria para la provisión del puesto de trabajo de responsable de obras y servicios, mediante concurso específico.

*Segundo.* Aprobar las bases que regirán la presente convocatoria. Se adjuntan las bases como anexo al presente acuerdo.

*Tercero.* Publicar la presente convocatoria y sus bases en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Contra la convocatoria y sus bases, que son definitivas en vía administrativa, podrá interponerse en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente al de su publicación, recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia o, potestativamente y con carácter previo, en el plazo de un mes, recurso de reposición ante la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Oiartzun.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Oiartzun, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Oiartzun, a 31 de mayo de 2021.—El alcalde, Jexux Leonet Elizegi. (3826)

*Bases para la provisión mediante el sistema de concurso específico del puesto de responsable de obras y servicios del Ayuntamiento de Oiartzun.*

*Primera. Objeto.*

1.1. Las presentes bases tienen por objeto regular la convocatoria para la provisión del puesto de responsable de obras y servicios del Ayuntamiento de Oiartzun, mediante el sistema de concurso específico.

1.2. Características de la plaza y puesto de trabajo.

— Nombre del puesto: responsable de Obras y Servicios.

— Plaza: escala de Administración Especial, subescala de Servicios Especiales y tipo de personal de oficios.

— Titulación de Graduado en Educación Secundaria Obligatoria.

— Perfil lingüístico: perfil lingüístico 2, preceptivo.

— Subgrupo de Clasificación: C1/C2.

— Complemento de destino 15.

— Complemento específico 22.420,86 euros.

EK\CV GAO-I-2021-03826

*Bigarrena. Eginkizunak.*

Deialdiko lanpostuari dagozkion eginkizunak, orientazio eta azalpen gisa, honako hauek dira:

— Planifikatzea eta antolatzea barneko eta kanpoko igeltserotza-lanak, bai mantentzekoak, bai egin berriak (kofratzea, labea oratzea, kutxatilak, hustubideak, espaloiak eta arekak eraikitzea eta konpontzea, barruko zoladurak jartzea, trenkadak eta hormak altxatzea, seinaleak jartzea, kanpoaldeko eta barrualdeko pinturak jartzea, etab.) era guztietako sare, bide eta eraikin publikoetan, ezarritako zehaztapen teknikoen arabera eta ezarritako epeetan.

— Udal eraikinen mantenua planifikatzea eta antolatzea.

— Bere lan esparruan koordinazio lanak egitea aparejadorea, arduradun politiko, udaltzainburu, beste brigadako arduradun zein eragile sozialekin.

— Kanpoko zerbitzuen kontratazioa proposatzea, bai eta horien kudeaketan laguntzea.

— Bere arloari dagozkion erosketen planifikazioa eta kudeaketa egitea.

— Hesiak, seinaleak, oholtzak eta abar jartzeko, muntatzeko eta desmuntatzeko lanak zuzentzea, eta beharrezkoa bada lan horietan laguntzea.

— Bere kargura dauden langileen lana gainbegiratzea, haiek zuzentzea eta behar duten laguntza profesionala ematea. Bere arloko enplegu-programak gauzatzeko kontratatutako langileak zuzentzea.

— Oiartzungo Udalak onartutako hizkuntza-irizpideak betetzen direla bermatzeko ardura izango du.

*Hirugarrena. Izangaiek bete beharreko baldintzak.*

Lehiaketan onartuak izan eta, hala egokituz gero, parte hartzeko, izangaiek baldintza hauek bete behar dituzte, parte hartzeko eskaera aurkezteko epea amaitu baino lehen:

a) Eskatzen den titulazioa edukitzea edo dagokion titulazioa lortzeko eskubideak ordainduta edukitzea: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo indarrean dagoen legeriak baliokidetzat jotzen duen beste edozein titulazio.

b) Oiartzungo Udaleko karrerako funtzionario izatea eta C1 edo C2 azpitaldeetako eta Administrazio Bereziko Zerbitzu berezien azpieskala, eta ofizioetako langile motako plaza batean behin betiko atxikitua egotea.

c) C1 edo C2 azpitaldeetako eta Administrazio Bereziko Zerbitzu berezien azpieskala, eta ofizioetako langile motako plaza batean bi urteko zerbitzu efektiboak bete izana eta lanpostuen zerrendan jasotako baldintzak betetzea.

d) Dagozkion eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala izatea. Bere garaian egiaztatu beharko da alderdi hori, onarturiko izangaiari Udalak horretarako jarritako zerbitzuetan egingo zaion mediku-azterketaren ondoren.

e) Hautagaiek zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan edo haurrak zaintzeko eszedentzia egoera administratiboan egon beharko dute, edo Euskal Funtzio Publikoaren Legeko 48. artikuluan aipatzen den beste edozein egoeratan.

Izangaiek baldintza horiek beteta eduki beharko dituzte eskaera aurkezteko epea amaitu baino lehen, eta lanpostua jabetzan hartu arte mantendu.

*Segunda. Funciones.*

Las funciones propias del puesto convocado, a título orientativo y explicativo, son las siguientes:

— Planificar y organizar los trabajos de albañilería interior y exterior tanto de mantenimiento como de nueva realización (encofrado, amasado de hormigón, construcción y arreglos de arquetas, sumidores, aceras y cunetas, colocación de pavimentos interiores, levantamiento de tabiques y muros, colocación de señales, pintura de exteriores e interiores, etc) en toda clase de redes, vías y edificios públicos, según las especificaciones técnicas y en los plazos establecidos.

— Planificar y organizar el mantenimiento de edificios municipales.

— Llevar a cabo la coordinación en su ámbito de trabajo con la aparejadora o el aparejador, responsables políticos, jefatura de la Policía Local, restantes responsables de la brigada y agentes sociales.

— Proponer la contratación de servicios externos, así como colaborar en su gestión.

— Planificar y gestionar las compras propias de su área.

— Dirigir y colaborar en la colocación, montaje y desmontaje de vallas, señales, tableros, etc.

— Supervisar el trabajo del personal a su cargo, dirigiéndoles y prestándoles el apoyo profesional necesario. Dirigir al personal contratado para la ejecución de los programas de empleo correspondiente a su área.

— Será responsable de garantizar el cumplimiento de los criterios lingüísticos aprobados por el Ayuntamiento de Oiartzun.

*Tercera. Requisitos de las personas aspirantes.*

Las personas aspirantes para ser admitidas y, en su caso, tomar parte en el concurso, deberán reunir, con anterioridad a la finalización del plazo de presentación de solicitudes, los siguientes requisitos:

a) Estar en posesión de la titulación exigida o haber abonado los derechos para la obtención de la titulación correspondiente: Educación Secundaria Obligatoria o cualquier otro declarado equivalente por la legislación vigente.

b) Ser funcionaria o funcionario de carrera del Ayuntamiento de Oiartzun y estar adscrita o adscrito con carácter definitivo a una plaza de los subgrupos C1 o C2, subescala Servicios Especiales de la Administración Especial y personal de oficios.

c) Haber completado dos años de servicios efectivos en una plaza de los subgrupos de clasificación C1 o C2, perteneciente a la escala de Administración Especial, subescala de Servicios Especiales y tipo de personal de oficios, y cumplir las condiciones recogidas en la relación de puestos de trabajo.

d) Tener capacidad funcional para el ejercicio de las funciones del puesto. Este extremo habrá de acreditarse en su momento, tras un reconocimiento a que será sometida la persona aspirante propuesta, en los servicios establecidos a tal efecto por el Ayuntamiento.

e) Las personas aspirantes deberán hallarse en situación administrativa de servicio activo, servicios especiales o excedencia para cuidado de hijos e hijas, o en alguna otra situación contemplada en el artículo 48 de la Ley de la Función Pública Vasca.

Las personas aspirantes deben reunir los requisitos antes de la finalización del plazo de presentación de instancias, y mantenerlos hasta la toma de posesión del puesto.

EK\CV GAO-I-2021-03826

*Laugarrena. Parte hartzeko eskaera.*

1. Lehiaketan parte hartzeko eskabideak, Oiartzungo Udalaren Arreta eta Erregistroko bulegoan eta web orrian (www.oiartzun.eus) eskuratu ahal izango den eredu ofizial eta normalizatuari egokituko zaizkio.

Oiartzungo Udalaren Alkate-Lehendakariari zuzendu beharko zaizkio eskabideak, deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatutako 15 egun balioduneko epean.

Era berean, eskabideak Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluak adierazitako herri-administrazioen erregistroetan aurkeztu ahal izango dira.

2. Eskabide horiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte, baztertuak izan ez daitezen:

a) Laugarren oinarrian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko da, betiere eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunerako.

Aurreko paragrafoan xedatutakoari dagokionez, onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda onartzeko ardura duen organoak prozeduraren edozein momentutan jakiten badu hautagaien batek ez dituela betetzen deialdian parte hartzeko ezarritako eskakizunak, hautagaia lehiaketatik kanporatuko du, entzunaldia eman ondoren.

b) Eskabidearekin batera, deialdian eskatzen diren eskakizunak eta deialdi honetan balioetsiko diren merezimenduak justifikatzen dituen dokumentazioa (jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak) aurkeztu beharko dute izangaiek, salbu eta dokumentazio hori Oiartzungo Udalean badago. Ezin izango dira balioetsi eskaerak aurkezteko epean argudiatu eta justifikatu ez diren merezimenduak, ezta epe horretan argudiatu arren, geroago justifikatu direnak ere. Merituak zazpigarren oinarrian zehaztutakoari jarraikiz justifikatuko dira.

3. Euskara azterketa egitetik salbuesteko, hizkuntza eskakizuna egiaztatzen duen dokumentua, edo harekin baliozkoturiko euskararen ezagutza egiaztatzeko beste titulu edo egiaztagiria aurkeztu beharko da; eta dokumentu horiek indarrean egon behar dute oinarriak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren unean.

Hizkuntza-eskakizunekin baliokidetutako tituluak eta ziurtagiriak apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan jasotzen dira, zeinaren arabera arautzen baita Euskadiko Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua (72. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 1997-04-17koa) eta azaroaren 9ko 297/2010 dekretuan ere jasotzen dira, zeina euskararen ezagutza egiaztatzeko tituluak eta ziurtagiriak baliozkotzeari buruzkoa eta horiek Hizkuntzetarako Europako erreferentziako Marko Komuneko mailekin parekatzeari buruzkoa baita (219. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 2010-11-15ekoa), apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan ere bai, euskaraz eginiko ikasketa ofizialak aitortu eta euskarazko hizkuntza titulu eta ziurtagirien bidez egiaztatzea salbuesteari buruzkoa (74. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 2012-04-16koa). Era berean, gai hau arautzen duen geroko edozein arautan jasoko direnak.

Euskara azterketa egitetik salbuesteko eta berori egiaztatzeko aurkeztu ahal izango da, baita ere, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuko, zeinaren bitartez arautzen den Euskadiko Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua, 42. artikuluan ezarrita dauden arrazoietakoren batean oinarrituta espreski eginiko eskaria, hala nola kasu partikular jakinetan sor daitezkeen eta aipatu eskaria arrazoitu dezaketen beste edozein gorabeheratan oinarritutako eskaria ere aurkeztu ahal izango da.

4. Desgaitasunen bat duten pertsonek horren berri eman beharko dute eskabidean, eta hornitzeko probak egin ahal izateko beharrezkotzat jotzen dituzten egokitzapen teknikoak ere

*Cuarta. Solicitud de participación.*

1. Las solicitudes para tomar parte en el concurso se ajustarán al modelo oficial y normalizado que podrá obtenerse en la oficina de Atención y Registro del Ayuntamiento de Oiartzun y en la página web del Ayuntamiento (www.oiartzun.eus).

Las solicitudes deberán dirigirse al Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Oiartzun en el plazo de 15 días hábiles contados a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Asimismo, las solicitudes podrán presentarse en los registros de las Administraciones Públicas a que se refiere el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

2. Las instancias solicitando ser admitida al concurso deberán reunir los siguientes requisitos para no ser rechazadas:

a) Se deberá hacer constar que reúnen todas y cada una de las condiciones exigidas en la base cuarta, referidas siempre a la fecha de expiración del plazo de presentación de instancias.

No obstante, lo dispuesto en el apartado anterior, si en cualquier momento del procedimiento llegara a conocimiento del órgano competente para aprobar la relación de personas admitidas y excluidas que alguna persona aspirante carece de los requisitos exigidos para tomar parte en la convocatoria, la excluirá del concurso, previa audiencia a la persona interesada.

b) Junto con la solicitud, las personas aspirantes deberán presentar la documentación justificativa (original o copia compulsada) de los requisitos exigidos en la convocatoria y de los méritos que se valorarán en la presente convocatoria, salvo que dicha documentación se encuentre en poder del Ayuntamiento de Oiartzun. No podrán valorarse aquellos méritos que no hayan sido alegados y justificados en el plazo de presentación de solicitudes, ni aquellos que, invocados en dicho plazo, hayan sido justificados posteriormente. La justificación de los méritos se realizará conforme a lo establecido en la base séptima.

3. A efectos de la exención del examen de euskera, se presentará documento justificativo de la acreditación del perfil lingüístico, o de títulos o certificados acreditativos de conocimientos de euskera convalidados con el mismo, con vigencia en el momento de publicación de las bases en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Los títulos y certificados convalidados con los perfiles lingüísticos se recogen el Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el cual se regula el proceso de normalización del uso del Euskera en las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi (*Boletín Oficial del País Vasco* número 72, de 1 de abril de 1997), en el Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera, y equiparación con los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas (*Boletín Oficial del País Vasco* número 219, de 15 de noviembre de 2010), en el Decreto 47/2012, de 3 de abril, de reconocimiento de los estudios oficiales realizados en euskera y de exención de la acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas en euskera (*Boletín Oficial del País Vasco* número 74, de 16 de abril de 2012), y en cualquier norma futura que regule este particular.

También podrá aportarse, a efectos de la exención del examen de euskera y del deber de su acreditación, solicitud expresa motivada en alguna de las causas establecidas en el artículo 42 del Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, así como en cualesquiera otras circunstancias que pudieran concurrir en determinados casos particulares y que pudieran apoyar dicha solicitud.

4. Las personas con discapacidad deberán hacer constar esta circunstancia en la solicitud, así como las adaptaciones técnicas que estimen necesarias para la realización de la prue-

EK\CV GAO-I-2021-03826

adieraziko dira. Eskatutako lanpostua eskatzailearen desgaitasunera egokitzea egokia den, eta, hala badagokio, lanpostuko zereginak eta eginkizunak betetzearekin bateragarria den aztertuko du Ebaluazio Batzordeak, eta, horretarako, dagokion informazioa eskatu ahal izango dio interesdunari eta Prebentzio Zerbitzuari.

5. Egindako eskabideak lotesleak izango dira eskatzailearentzat, eta esleitutako lanpostuari ezin izango zaio uko egin, salbu eta, lanpostuaz jabetzeko epea amaitu baino lehen, deialdi publiko bidez behin betiko beste destinoren bat lortu bada. Horrek ez du eragotziko lehiaketan parte hartzeari uko egitea, urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren bidez onartutako Euskal Administrazio Publikoetako funtzionarioen lanpostuak hornitzeko Erregelamenduaren 21. artikuluan aurreikusitako moduan.

*Bosgarrena. Hautagaien onarpena.*

1. Eskaera orriak aurkezteko epea amaituta, Alkate-Lehendakariak ebazpena emango du lehiaketako onartu eta baztertuen behin behineko zerrendak onesteko. Zerrenda horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, udalaren webgunean (www.oiartzun.eus), eta udaletxeko iragarki-taulan jarriko dira ikusgai. Hautagaiek hamar egun balioduneko epea izango dute erreklamazioak aurkezteko.

2. Behin behineko zerrendak behin betiko bihurtuko dira automatikoki, erreklamaziorik aurkezten ez bada. Erreklamaziorik badago, beste ebazpen baten bitartez onetsi edo baztertuko dira eta ebazpen berorren bitartez onartuko dira behin betiko zerrendak, eta aipatutako moduan argitaratuko dira.

*Seigarrena. Ebaluaketa Batzordea.*

1. Izendapena.

Alkate-Lehendakariak ebazpena emango du, Ebaluaketa Batzordeko kide titularrak eta ordezkoak izendatzeko.

Izendapenak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, lehiaketan onartu eta baztertutakoen behin-behineko zerrendarekin batera.

2. Osaera.

Lehendakari batek, idazkari batek eta lau bokalek osatuko dute Ebaluaketa Batzordea, eta horiek kalifikatuko dituzte hautaketa probak.

Ebaluaketa Batzordeko kide guztiak karrerako funtzionarioak izango dira, eta deialdi honetan parte hartzeko exijitzen den titulazio akademiko maila bera edo goragokoa izango dute.

Euskarako frogarako soilik Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko ordezkari bat izendatuko da (IVAP).

Ebaluaketa Batzordeko kideak izendatzeko, inpartzialtasunaren eta profesionaltasunaren printzipioak errespetatu beharko dira, eta emakumeen eta gizonen arteko parekotasuna bilatuko da. Era berean, espezialitate printzipioa errespetatuko da, eta horren arabera, gutxienez, kideen erdiek eduki beharko dute deialdian parte hartzeko eskatzen den jakintza arlo bereko titulazioa.

Ebaluazio-batzordea osatuko duten pertsonak izendatzean, kontuan hartu beharko da hizkuntza-gaitasuna nahikoa dela euskaraz egiten den ariketa praktikoa behar bezala baloratzeko.

3. Jarduna.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak kide anitzeko organoei buruz xedatzen duenarekin bat etorriko da Ebaluaketa Batzordearen jarduna.

ba de provisión. La Comisión Evaluadora analizará la adecuación del puesto a la discapacidad de la persona solicitante y, en su caso, su compatibilidad con el desempeño de las funciones y tareas de un puesto concreto, a cuyo efecto podrá solicitar la información pertinente a la persona interesada y al Servicio de Prevención.

5. Las solicitudes formuladas serán vinculantes para la persona solicitante y el puesto de trabajo adjudicado será irrenunciable, salvo que, antes de finalizado el plazo de toma de posesión, se hubiera obtenido otro destino definitivo mediante convocatoria pública, y sin perjuicio de la posibilidad de desistimiento de la participación en el concurso prevista en el artículo 21 del Reglamento para la provisión de puestos de trabajo del personal funcionario de las Administraciones Públicas Vascas, aprobado mediante Decreto 190/2004, de 13 de octubre.

*Quinta. Admisión de personas aspirantes.*

1. Finalizado el plazo de presentación de instancias, el Alcalde-Presidente dictará resolución por la que se aprueben las listas provisionales de personas candidatas admitidas y excluidas del concurso. Estos listados se publicarán en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en la página web municipal (www.oiartzun.eus) y se expondrán en el tablón de anuncios del Ayuntamiento. Las personas candidatas dispondrán de un plazo de reclamaciones de diez días hábiles.

2. Las listas provisionales se entenderán automáticamente elevadas a definitivas si no se producen reclamaciones. Si las hubiere, serán aceptadas o rechazadas en una nueva resolución por la que se aprueben las listas definitivas, que se harán públicas, asimismo, en la forma indicada.

*Sexta. Comisión evaluadora.*

1. Nombramiento.

El Alcalde-Presidente dictará resolución designando a las personas titulares y suplentes de la Comisión Evaluadora.

Los nombramientos se publicarán en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, junto con la relación provisional de personas admitidas y excluidas en el concurso.

2. Composición.

La Comisión Evaluadora estará compuesta por una persona como presidente, una persona como secretaria y cuatro vocales, que han de calificar las pruebas selectivas.

La Comisión Evaluadora estará integrada por personal funcionario de carrera con titulación académica de nivel igual o superior al exigido para tomar parte en esta convocatoria.

Solo para la prueba de euskera se designará una persona en representación del Instituto Vasco de Administración Pública (IVAP).

En la designación de las personas que componen la Comisión Evaluadora deberán respetarse los principios de imparcialidad y profesionalidad y se tenderá a la paridad entre hombres y mujeres. Se respetará, asimismo, el principio de especialidad, conforme al cual, al menos, la mitad deberá poseer una titulación correspondiente a la misma área de conocimiento que la exigida para tomar parte en esta convocatoria.

En la designación de las personas que componen la Comisión Evaluadora se deberá tener en cuenta que la competencia lingüística sea suficiente para valorar adecuadamente el ejercicio práctico que sea realizado en euskera.

3. Actuación.

La actuación de la Comisión Evaluadora se ajustará a las disposiciones que sobre órganos colegiados están contenidas en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23 eta 24. artikuluak, balizko abstentzio eta errekusatzeari buruzkoak, aplikatuko zaizkie Ebaluaketa Batzordeko kideei.

Ebaluaketa Batzordeak bere lanetarako hartu ahal izango ditu aholkulari edo enpresa espezialistak, haien beharra dagoela ikusten duen ariketetarako, eta aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan laguntza eskaintzera mugatuko dira.

Ebaluaketa Batzordea eratzen denetik, balio osoz jarduteko, bere kideen gehiengoak egon beharko du, titularrak nahiz ordezkoak izan. Arau hauek aplikatzerakoan sor daitezkeen zalantza guztiak konponduko ditu Ebaluaketa Batzordeak, baita aurreikusi gabeko kasuetan zer egin behar den erabaki ere.

Komunikazioetarako eta gainerako gorabeheretarako, Ebaluaketa Batzordearen egoitza Oiartzungo Udalean egongo da, Oiartzungo Done Eztebe Plaza, 1ean.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 45.1.b) artikuluak xedatutakoaren ondorioetarako, lehiaketatik eratortzen diren administrazio egintzak udalaren web orrian eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko dira. Horrek jakinarazpena ordeztuko du eta ondorio berak izango ditu.

*Zazpigarrena. Hautaketa prozesua.*

1. Lehen fasea: Merezimendu orokorrak.

Honako merezimendu hauek baloratuko dira, betiere eskaera orrian adierazitakoak eta behar bezala egiaztatutakoak:

a) Esperientzia profesionala, lortu nahi den postuaren funtzioak edo antzeko funtzioak dituzten lanpostuetan izandakoa. Gehienez 20 punturaino baloratuko da, urte bakoitzeko gehienez 5 puntu, betiere betetako funtzioak deitutako postuko funtzioekin lotura maximoa badute. Ebaluaketa Batzordeak ehuneko murriztaileak ezarri ahal izango ditu haien harreman ezosoko egoeretarako. Edonola ere, lan esperientzian gehienez 5 urte baloratuko dira, eta urtebete baino iraupen txikiagoko lanaldiak proportzionalki zenbatu ahal izango ditu Ebaluaketa Batzordeak.

b) Titulazio akademiko ofizialak (erdi-mailako eta goi-mailako lanbide heziketa tituluak, unibertsitate gradu edota gradu ondoko titulazio ofizialak, edo unibertsitateko titulazio baliokideak): Prozesuan parte hartzeko egiaztatutakoez bestelako titulu akademikoak baloratuko dira, deitutako lanpostua betetzeko duten erabilgarritasun-mailari dagokionez. Gehienez 5 puntu emango dira, baremo honen arabera:

— Erdi-mailako edo goi-mailako lanbide-heziketako titulua: puntu 1 titulu bakoitzeko.

— Lizentziadun titulua, graduko titulua (Goi Mailako Hezkuntzarako Prestakuntzaren Espainiako Markoko 3. mailakoa) edo baliokidea izateagatik, 2 puntu emango dira titulu bakoitzeko.

— Diplomadun titulua, graduko titulua (Goi Mailako Hezkuntzarako Prestakuntzaren Espainiako Markoko 2. mailakoa) edo baliokidea izateagatik, 1,50 puntu emango dira titulu bakoitzeko.

c) Prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak, deitutako postuaren funtzioekin edo hura betetzeko behar diren trebetasunekin lotura duten gaietan, betiere Herri Administrazioek antolatu edo homologatutakoak, eta deialdiaren oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu aurreko hamar urteetan eginak. Gehienez jota 10 puntu arte baloratuko dira, afinitate handienekotzat jotzen den prestakuntzako ehun orduko multzo bakoitzagatik puntu bat, eta ez dira inongo kasutan kontuan hartuko informatika edota ofimatikari buruzko ikastaroak. Edonola ere afinitate portzentajeak eman ahal izango zaizkio alegatutako prestakuntzari, lanposturako eskatzen diren ezagutzak eta/edo trebetasunak hobetzen zein neurritan laguntzen duten egoki baloratu ahal izateko.

A las personas que componen la Comisión Evaluadora les serán de aplicación los supuestos de abstención y recusación de los artículos 23 y 24 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

La Comisión Evaluadora podrá disponer la incorporación a sus trabajos de personal asesor o empresas especialistas para las pruebas que estime pertinentes, limitándose dicho personal a prestar su colaboración en sus especialidades técnicas.

A partir de su constitución, la Comisión Evaluadora, para actuar válidamente, requerirá la presencia de la mayoría de sus componentes, titulares o suplentes. La Comisión Evaluadora resolverá todas las dudas que pudieran surgir en la aplicación de estas normas, así como lo que se deba hacer en los casos no previstos.

A efectos de comunicaciones y demás incidencias la Comisión Evaluadora tendrá su sede en el Ayuntamiento de Oiartzun, sito en la Plaza Done Eztebe 1 de Oiartzun.

A los efectos de lo dispuesto en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo común de las Administraciones Públicas, los actos administrativos que deriven del presente concurso serán objeto de publicación en la página web municipal, y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, sustituyendo a la notificación y surtiendo sus mismos efectos.

*Séptima. Proceso de selección.*

1. Primera fase: Méritos generales:

Se valorarán los siguientes méritos, siempre que hayan sido alegados en la instancia y debidamente acreditados:

a) Experiencia profesional desempeñando puestos de trabajo con funciones iguales o similares a las del puesto a que se opta. Se valorará hasta un máximo de 20 puntos, a razón de un máximo de 5 puntos por año, siempre que las funciones desempeñadas tengan una relación máxima con las del puesto convocado. La Comisión Evaluadora podrá establecer porcentajes reductores para situaciones de relación no plena de las mismas. En todo caso, se valorará un máximo de 5 años de experiencia laboral, pudiendo la Comisión Evaluadora computar proporcionalmente períodos de tiempo inferiores al año de duración.

b) Titulaciones académicas oficiales (formaciones profesionales de grado medio y superior, grados y postgrados universitarios oficiales; o titulaciones universitarias equivalentes): Se valorarán títulos académicos distintos a los acreditados para participar en el proceso en relación con su grado de utilidad para desempeñar el puesto convocado, con un máximo de 5 puntos y conforme al siguiente baremo:

— Título de formación profesional medio o superior: 1 punto por título.

— Título de licenciatura, grado (meces 3) o equivalente: 2 puntos por título.

— Título de diplomatura, grado (meces 2) o equivalente: 1,50 puntos por título.

c) Cursos de formación y perfeccionamiento en materias relacionadas con las funciones del puesto convocado, o con destrezas requeridas para su desempeño, organizados u homologados por Administraciones Públicas y realizados en los diez años anteriores a la fecha de publicación de las bases de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa Se valorarán hasta un máximo de 10 puntos a razón de un punto por cada cien horas de aquella formación considerada de máxima afinidad. En todo caso, se podrán asignar porcentajes de afinidad a la formación alegada a fin de valorar, en su justa medida, su contribución a la mejora de conocimientos o destrezas requeridas por el puesto de trabajo.

EK\CV GAO-I-2021-03826

d) Antzinatasuna: Hilabete osoak baloratuko dira, eta, ondorio horietarako, karrerako funtzionario-izaera eskuratu aurretik aitortutakoak ere zenbatuko dira, formula honen arabera: gehienez ere 20 puntu:

— Eskatzen den lanpostua eskuratzeko aukera ematen duen edozein plazan 0,20 puntu hileko.

Antzinatasuna egiaztatzeko, zerbitzuak eman dituzten administrazioak emandako ziurtagiria aurkeztu behar da, administrazio honetarako emandakoa izan ezik, hori ofizioz baloratuko baita.

e) Maila pertsonala:

Lortu nahi den lanpostuari dagokionez baloratuko da, irizpide honen arabera eta 3 puntura arte.

— 15. maila edo gorakoak: 3 puntu.

— 10. maila: 2 puntu.

Gutxieneko puntuazioa, fase hau gainditzeko, 25 puntukoa izango da.

2. Bigarren fasea: Merezimendu espezifikoak.

Ariketa praktikoa, postuaren funtzioekin lotura izango duena. Gehienez 50 punturekin kalifikatuko da, eta gutxienez 25 puntu beharko dira, gainditzeko.

Nolanahi ere, ariketa praktikoan hizkera ez-sexista erabiltzea baloratuko da.

3. Euskara.

Merezimenduen balorazioa gainditu duten pertsonek egingo dute euskarako ariketa, 2. hizkuntza-eskakizunak eskatzen dituen ezagutzetan oinarrituta, eta ez da baloratuko; izangaiak Gai de Ez Gai diren adieraziko da.

Ariketa hau egin beharrik ez dute izango aurrez egiaztatuta duten haiek, oinarri hauetan aurreikusten den moduan egin bada.

*Zortzigarrena. Ebaluaketa Batzordearen proposamena.*

Balorazioa egindakoan eta, hala badagokio, haren aurkako erreklamazioak erabakitakoan, Ebaluaketa Batzordeak dagokion organoari aurkeztuko dio deitutako lanpostua esleitzeko proposamena. Esleipen proposamena, puntuaziorik altuena lortu duenaren alde egingo da.

Berdinketa emango balitz, ondorengo irizpideen arabera jardungo litzateke, ordenari jarraiki:

a) Lehenik eta behin, ariketa praktikoan lortutako puntuazioa kontuan hartuko da.

b) Bigarrenik, merezimendu orokorren a) atala (esperientzia profesionala).

c) Hirugarrenik, merezimendu orokorren c) atala (prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak).

d) Laugarrenik, merezimendu orokorren b) atala (titulazio akademiko ofizialak).

e) Bostgarrenik, merezimendu orokorren e) atala (gradu pertsonal finkatua).

Deitutako postua bete gabe utz daiteke, soilik, inork eskatzen ez badu edo, eskatuta ere, deialdiaren oinarrietan aurreikusitako gutxieneko puntuazioa inork lortu ez badu.

*Bederatzigarrena. Postua hartzea.*

Izendapenerako proposatutako funtzionarioak lanpostuaz jabetu beharko du, eta aurreko lanpostuaren titulartasuna galdu, salbu eta, lanpostuaz jabetzeko epea amaitu baino lehen, honako egoera hauetakoren bat gertatzen bada: deialdi publikoaren bidez beste destino bat lortu izana, gerora sortutako ezintasuna izatea, zerbitzu aktiboaz bestelako egoera batera igarotzea, edo

d) Antigüedad: Se valorará por meses completos, computándose a estos efectos también los reconocidos con anterioridad a la adquisición de la condición de personal funcionario de carrera, de acuerdo con la siguiente fórmula, hasta un máximo de 20 puntos:

— En cualquier plaza desde la que se puede optar al puesto que se solicita a razón de 0,20 puntos por mes.

La antigüedad se acredita con certificación expedida por la Administración en que hayan prestado servicios, salvo la prestada para esta Administración que será valorada de oficio.

e) Grado personal:

Se valorará en relación con el puesto de trabajo al que se opta, según el siguiente criterio y hasta 3 puntos.

— El nivel 15 o superior: 3 puntos.

— El nivel 10: 2 puntos.

La puntuación mínima para superar esta fase será de 25 puntos.

2. Segunda fase: Méritos Específicos.

Ejercicio práctico relacionado con las funciones del puesto. Se calificará con un máximo de 50 puntos, siendo necesario un mínimo de 25 para superarlo.

En todo caso, se valorará la utilización de un lenguaje no sexista en el desarrollo del ejercicio práctico.

3. Euskera.

Las personas que hayan superado la valoración de méritos realizarán el ejercicio de euskera, sobre conocimientos del Perfil lingüístico 2, que no se puntuará, sino que las personas candidatas serán declaradas Aptas o No Aptas.

No deberán realizar este ejercicio quienes previamente lo hubieren acreditado, en la forma prevista en las presentes bases.

*Octava. Propuesta de la Comisión Evaluadora.*

Efectuada la valoración y resueltas, en su caso, las reclamaciones contra la misma, la Comisión Evaluadora elevará al órgano competente propuesta de adjudicación del puesto convocado. La propuesta de adjudicación deberá recaer sobre quien haya obtenido mayor puntuación final.

En caso de empate, se dirimirá conforme a los siguientes criterios, en el orden que se establece:

a) En primer lugar, a la puntuación obtenida en el ejercicio práctico.

b) En segundo lugar, el apartado a) de los méritos generales (experiencia profesional).

c) En tercer lugar, el apartado c) de los méritos generales (cursos de formación y perfeccionamiento).

d) En cuarto lugar, el apartado b) de los méritos generales (titulaciones académicas oficiales).

e) En quinto lugar, el apartado e) de los méritos generales (grado personal consolidado).

El puesto convocado sólo podrá ser declarado desierto si nadie lo solicita o si, habiéndolo solicitado, nadie ha obtenido la puntuación mínima prevista en estas bases de la convocatoria.

*Novena. Toma de posesión.*

La persona propuesta para el nombramiento deberá tomar posesión en el puesto obtenido en concurso perdiendo la titularidad del puesto anterior, salvo que, antes de finalizar el plazo de toma de posesión, se de alguna de las siguientes circunstancias: se hubiera obtenido otro destino mediante convocatoria pública, tenga incapacidad sobrevenida, pase a una situación

EK\CV GAO-I-2021-03826

deialdia egin duen organoak behar bezala justifikatutako salbuespenezko beste arrazoi batzuk direla medio.

Lehiaketan parte hartzen duten pertsonek borondatez uko egin ahal izango diote lehiaketan parte hartzeari, betiere izendapena egin aurretik.

Jatorrizko atxikipen-lanpostua lehiaketaren ebazpena argitaratu eta hurrengo 3 egun baliodunetan utzi beharko da. Lanpostu berriaz jabetzeko epea, berriz, kargua utzi eta hurrengo eguna izango da.

Hala ere, antolaketa-arrazoiek hala eskatzen dutenean, lehiaketaren ebazpenean kargu-uztearen eta kargu-hartzearen data zehatza zehaztu ahal izango da.

Lehiaketa horren bitartez lanpostua lortzen duen langileak ezin izango du beste lehiaketa batzuetan parte hartu postu berriaz jabetu zenetik bi urte igaro arte.

*Hamargarrena. Aurkaratzea.*

Deialdia, oinarriak eta horietatik eta Ebaluaketa Batzordearen jardunaren ondorioz izan daitezkeen egintza administratibo guztiak inpugnatu ahalko dira, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako epeetan eta forman.

diferente a la de servicio activo, o por otras causas excepcionales debidamente justificadas apreciadas por el órgano convocante.

Las personas que participan en el concurso, podrán desistir, voluntariamente, de su participación, siempre que sea con anterioridad al nombramiento.

El cese en el puesto de adscripción originario deberá efectuarse dentro de los 3 días hábiles siguientes a la publicación de la resolución del concurso. Mientras que el plazo para tomar posesión del nuevo puesto será al día siguiente del cese.

No obstante, cuando razones organizativas lo aconsejen, en la resolución del concurso se podrá determinar la fecha concreta de cese y toma de posesión.

La persona que obtenga un puesto de trabajo a través de este concurso no podrá participar en otros concursos hasta que hayan transcurrido dos años desde que tomaron posesión en el nuevo puesto.

*Décima. Impugnaciones.*

Esta convocatoria, sus bases y cuantos actos administrativos se deriven de aquéllas y de la actuación de la Comisión Evaluadora podrán ser impugnados en los plazos y forma previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

EK\CV GAO-I-2021-03826